ALHAO ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**

2022ko martxoaren 25a, ostirala • 36 zk.

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

IRUÑA OKAKO UDALA

Iruña Okako udalbatzaren 2022ko martxoaren 9ko erabakiaren laburpena, zeinaren bidez deialdi publikoa egiten baita kirol elkarte, talde eta klubei dirulaguntzak emateko, 2022an jarduerak egin ditzaten

DDBN (Identif.): 615297

Bat etorriz Dirulaguntzei buruzko azaroaren 38/2003 Legeak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan xedatuta koarekin, argitara ematen da deialdiaren laburpena. Testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean dago ikusgai:

(https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/615297)

(http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index)

Lehenengoa. Onuradunak

Dirulaguntza hauen onuradun izan daitezke kirol elkarte, talde eta klub publiko zein pribatuak, irabazteko xederik gabe eratuak, sozietatearen egoitza Iruña Okan dutenak edo jarduera udalerri horretan egiten dutenak, legez eratuak edo erregistratuak badaude. Era berean, Iruña Okako Elkarteen Udal Erregistroan inskribatuta eta behar bezala eguneratuta egon beharko dute, eta bazkideen, gutxienez, ehuneko 75ek Iruña Okako udalerrian erroldatuta egon beharko dute.

Deialdi honetatik kanpo geratzen dira administrazio batzarrak, ikastetxeak, udal institutuak eta horien barneko edo horiei atxikitako talde eta elkarteak, kultura edo gizarte xederik ez duten elkarte eta erakundeak eta ikasleen gurasoen elkarteak (IGE).

Salbuespen gisa, Kirol Batzordeak hala proposatzen duenean, Iruña Okatik kanpo dauden erakundeek jaso ahal izango dituzte laguntzak, baldin eta beren jardueraren zati handi bat udalerrian garatzen badute edo udalerriarentzat interesgarri jotzen bada.

Bazter utzitakoak. Deialdi honen aplikazio eremutik kanpo geratzen dira honako jarduera hauek:

a) Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 13.2 eta 13.3 artikuluetan jasotako inguruabarretakoren batean daudenak.

b) Izaeragatik edo xedeagatik Kirol Batzordeari esleitutako jardun eremuekin zuzeneko loturarik ez dutenak.

c) Edozein motatako zerga betebeharrak (tokikoak eta Gizarte Segurantzarekikoak barne) egunean ez dituzten erakunde edo elkarteek aurkeztutako eskabideak.

d) Ez dira kontuan hartuko aurreko deialdietan emandako dirulaguntzen justifikazio memoria entregatu gabe duen jarduera edo programei buruzko eskaerak.

e) Ez dira kontuan hartuko beren jarduera publikoetan indarreko legeria betetzen ez duten elkarte, erakunde eta pertsonen proposamenak (jaiotza tokiagatiko, arrazagatiko, sexuagatiko edo erlijioagatiko diskriminazioa).

Bigarrena. Xedea

Aurrekontu mugak errespetatuz, kirol jardueren gastuak finantzatzen laguntzea, hain zuzen ere kirol elkarte, talde eta klubek 2022. urtean edo 2021-22 denboraldian Iruña Okan sustatzen dituztenak edo udalerriarentzat interesgarri jotzen ahal direnak.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

Iruña Okako udalbatzak 2022ko martxoaren 9ko erabakiaren bidez onetsitakoak. Udalaren web orrian eta Dirulaguntzen Sistema Nazionalean argitaratuko dira.

Laugarrena. Zenbatekoa

Kontsultatu oinarri arauen zortzigarren klausula.

Bosgarrena. Eskaerak aurkezteko epea

Eskabideak eta bosgarren oinarrian aipatzen diren agiriak aurkezteko 2022ko maiatzaren 16ra arteko epea egongo da.

Iruña Oka, 2022ko martxoaren 15a

Alkate-lehendakaria
MIGUEL ÁNGEL MONTES SÁNCHEZ

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Firmante: CN=ZERBITZU OROKORREN ZUZENDARITZA - DIRECCION SERVICIOS GENERALES, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=SELLO ELECTRONICO, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-P0100000I, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 211865
Fecha de firma: 2022.03.25 06:49:52 Z